

## Aztarna energetikoan eragiten duten faktoreak argitu dituzte Errekaleorren

**Errekaleor auzoko aztarna energetikoa biztanleko EAEkoa baino % 24 txikiagoa dela kalkulatu dute Ekopol eta Life Cycle Thinking Group ikerketa-taldeek (EHU). Hortik ondorioztatu dute bizimodu alternatibo eta komunitarioak energia-kontsumoa murriztu dezakeela.**

Herialde baten energia-kontsumoa zenbatze-rakoan, oro har, energia primarioaren hornidura osoa izeneko adierazlea erabiltzen da (Total Primary Energy Supply, TPES).

TPESak herrialde baten barruan (etxebizitzetan, garraioan, industrian eta zerbitzuetan) egiten den energia primarioaren guztizko kontsumoa hartzen du kontuan, baina ez ditu aintzat hartzen ezkutuko kontsumoak. Horrenbestez, Ipar Globaleko herrialdeen energia-kontsumoa berez dena baino txikiagoa dela dirudi. Kontrakoa gertatzen da Hegoalde Globaleko herrialdeekin.

Energia-aztarna deritzon adierazleak (Total Primary Energy Footprint, TPEF), berriz, ezkutuko energia-fluxuak ere kontuan hartzen ditu. Orain argitaratu duten ikerketan energia-aztarnak kalkulatu dituzte, lehen aldiz, Input-Output metodologia erabilita,



Errekaleor auzoko panel fotovoltaikoak.  
ARG.: Txo/Wikipedia CC 4.0.

eskualde-mailan (EAE) eta auzo-mailan (Errekaleor, Gasteiz).

Emaitzek erakutsi dute komunitate-bizitzak energia-kontsumoa murriztu dezakeela. Lehenik eta behin, Errekaleorreko biztanleen etxebizitzetako energia-kontsumoa (4,46 MWh-biz-1-urte-1), batez beste, EAEko eta Espainiako biztanleena baino % 32 eta % 15 handiagoa den arren, Errekaleorreko biztanleen aztarna energetikoa (31,10 MWh biztanleko eta urteko EAEko eta Espainiako biztanleena baino % 14 eta % 24 txikiagoa da, hurrenez hurren.

Estitxu Villamor Lomas ikerketaburuaren arabera, produktueta eta zerbitzuetan txertatuta dagoen energia-kontsumoaren garrantziari zor zaio hori, Espainiako aztarna energetiko totalaren % 81 baita, EAEko aztarnaren %75, eta Errekaleorreko aztarnaren % 66. "Horrek erakusten du pertsona bakoitzaren kontsumo-materialaren atzean daudela aztarna energetikoa baldintzatzen duten faktore nagusiak", baieztatu du.

Bestalde, nabarmendu du Errekaleorreko instalazio fotovoltaikotik datorren argindarra auzoko aztarna energetiko osoaren % 0,6 baino ez dela.

Villamorren esanean, ikerketa baliagarria da, batetik, aztarna ekologikoan eragiten duten faktoreen garrantziaz jabetzeko, eta, bestetik, aztarna txikituko duten politika eraginkorrak diseinatzeko. ●